

# ETXEA ERAIKITZEN PARTE HARTZEN DUTEN LANGILEAK



SEKUENTZIA DIDAKTIKOA  
Lehen Hezkuntzako 4. maila

J. Ignacio Hormaetxea  
2011ko ekainean berrikusia

## **ETXEA ERAIKITZEN PARTE HARTZEN DUTEN LANGILEAK**

**Arloak: Hizkuntzak, Ingurunea eta Adierazpen Artistikoa**

**Gaia: Azalpen-testu idatzia eta ahozkoa**

**Maila: LHko 4. maila**

**Saio kopurua: 8**

### **Proposamenaren testuingurua**

Sekuentzia hau proiektu global eta eleanitz orokorrago baten barruan txertatuta dago. "Proiektuan ikasleek gaia era anitzetan aztertuko dute: etxea inguru fisiko bezala eta baita inguru afektibo eta kultural bezala ere.

Proposamenean, umeei produktu bat osatuko dute: liburutegian uzteko liburu elebiduna egingo dute eta liburutegian utzi aurretik beste geletako ikasleei aurkeztuko diete. Liburuan, etxea eraikitzen parte hartzen duten langileak aztertuko dituzte. Ikasleek lau kideko taldeetan lan egingo dute, talde bakoitzak langile bat aukeratuko du eta langile horren lana azalduko du. Era berean, langile horrek erabiltzen duen tresneria azalduko dute, segurtasunerako hartu behar diren neurriak azalduko dituzte, irudiak jarriko dituzte eta hori guztia, liburua osatzeko, gela osoak adostutako formatuan islatuko dute.

Liburua elebiduna izango da, talde batzuek euskaraz egingo dute eta beste batzuek gaztelaniaz. Halaber, kontuan hartu behar dugu, gai batzuk lantzerakoan, adibidez, tresneriari dagozkion informazio eta erreferentzia batzuk erdaraz izango dituztela. Honelako lana egiteko, ikasle guztiek egin behar dute lan eta bakoitzak taldeari bere ekarpena egingo dio, beraz, denek garrantzia izango dute taldean. Ume guztiek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izango dutenez, aniztasuna oztopo izan beharrean, balore positiboa izango da.

### **Landuko diren oinarrizko gaitasunak**

- Ikasten ikasteko gaitasuna (3,4,5 eta 7 jardueretan)
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (1,2,3,4,5,6,7 eta 8 jardueretan)
- Informazioaren trataera eta gaitasun digitala (4 eta 6 jardueretan)
- Norberaren autonomiarako gaitasuna (1,3,4,5,7, eta 8 jardueretan)
- Kultura artistikorako gaitasuna (6 jardueretan)

### **Helburu didaktikoak**

- Informazioa hainbat iturritatik lortzea.
- Testuetatik informazio garrantzitsua ateratzea.
- Talde-lanean aritzea.
- Eztabaidarako zenbait trebetasun garatzea.
- Testu prozesadore erabiltzea.
- Gai bati buruzko txostena idaztea.
- Txostena era estetikoan aurkeztea.
- Jendearen aurrean hitz egiteko gaitasuna garatzea.

## **Edukiak**

- Lanbideen ezaugarriak
- Lanbide batzuetarako tresneriaren ezaugarriak
- Idatzizko txostena gauzatzeko prozedura
- Talde-lanarekiko jarrera ona
- Publikoaren aurrean hitz egiteko trebeziak
- Datuen hautaketa
- Testu prozesadorearen erabilera

## **Jardueren sekuentzia**

### a) Planifikatzea

- 1. jarduera. Motibazioa, aurre ideiak, lanaren proposamena. Taldeak osatu.
- 2. jarduera. Lanaren atazak prestatu.

### b) Gauzatzea

- 3. jarduera. Informazioaren bilaketa: liburuetan, familian, interneten, ... Iturri guztiak lanaren amaieran bibliografia moduan islatu.
- 4. jarduera. Informazioa antolatu.
- 5. jarduera. Informazioa antolatu.
- 6. jarduera. Txostena idatzi.
  - Ordenagailua
    - Aurretik adostutako eredia erabili.
    - Txukundu, testu prozesadorea erabili.
    - Azalpen testuaren ezaugarriak errespetatu.
  - Irudiak eta dagozkien argazki oinak jarri.

### c) Erabiltzea

- 7. jarduera. Beste ikaskideen aurreko aurkezpena prestatu.
- 8. jarduera. Aurkezpena

## **Ebaluazioa**

### *Adierazleak:*

- Ea informazioa bilatzen dakien.
- Ea informazioa hautatzen dakien.
- Ea taldean egoki aritzen den.
- Ea norberaren gaitasunak eta zailtasunak onartzen eta baloratzen dakien.
- Ea testu prozesadorea egoki erabiltzen dakien.
- Ea idatzizko txostenen ezaugarriak egoki ezagutzen eta islatzen dakien.
- Ea ahozko aurkezpena egoki egiten dakien.

### *Tresnak*

- *Jardueretan, kontrol orriak eta behaketa txantiloiak*

## **AMAIERAKO HELBURUAK**

Jarduera hauek amaitzerakoan gai izango gara:

- Iturri ezberdinetatik informazioa lortzeko.
- Taldean era egokian lan egiteko.
- Testu prozesadorea erabiltzeko.
- Etxea eraikitzen lan egiten duten langileei buruzko txostena idazteko.
- Beste ikaskideen aurrean txostena azaltzeko.

## 1. jarduera

“Etxea” proiektua lantzen ari gara eta etxeari buruz asko ikasi dugu; ikerketa batzuk egin ditugu: munduko etxe mota ezberdinak eta gure herrietako etxeak aztertu eta ikertu ditugu.



Gureak irizpide horiekin sailkatu ditugu: gure etxeak herriko planoan kokatu ditugu, gure etxeetako planoak marraztu ditugu, etxean bizi garenoi buruz hitz egin dugu... eta beste hainbat ikerketa ere burutu ditugu.

Baina etxeak ez dira lurretik sortzen; norbaitek egin behar ditu eta hau da orain aztertuko duguna: **etxea eraikitzen nork, zein langilek hartzen duen parte.**

Beti bezala, lanean hasi baino lehen, bi galdera nagusi egingo dizkiogu geure buruari: zer dakigu gaiari buruz? Eta, zer jakin nahi dugu gaiari buruz?

Beraz, hartu papera eta alde batean idatzi zer dakizuen gaiari buruz, eta beste aldean, zer jakin nahi duzuen. Hau egiteko hamar minutu dituzue eta gero denon artean eztabaidatuko dugu zer lortu nahi dugun.

Ondoren, lau kideko taldeak osatuko dituzue.

Taldeak antolatu ondoren, taldekideen trebetasun nagusiak zeintzuk diren ezagutzen dituzueenez, bakoitzak zein lan beteko duen erabakiko duzue.

## 2. jarduera

**Lanaren atazak prestatzen.**

Langile batzuk aipatu dituzue (elektrikaria, arkitektoa, igeltseroa, arotza, margolaria, iturgina) eta beraien lanari buruz gauza asko jakiteko interesa duzue. Baina ezin duzue ahaztu azken helburua liburuxka bat osatzea dela. Orduan, lehenbailehen adostu behar duzue zeintzuk izango diren liburuaren atalak. Hona hemen proposamen batzuk:

- Zer egin du ofizio hori ikasteko?
- Zein lan egiten du etxea eraikitzerakoan?
- Eta etxea egin ondoren, ondo mantentzeko, zer egiten du?
- Zein tresna erabiltzen du bere lana betetzeko?
- Zein segurtasun neurri hartzen ditu bere lanean?

### 3. jarduera

#### Informazio bila.

Orain badakizue zer azaldu nahi duzuen txostenean. Lana burutzeko informazioa behar da eta hori lortzeko modu ezberdinetan joka dezakezue: etxekoei galdetu, liburuetan bilatu (etxekoetan edo eskolako liburutegian), eta baita interneten ere.



Informazioa internetik ateratzerakoan kontu informatiboa dagoela eta zuek aukeratu beharko duzuela zein den egokia eta zein ez.

Horretarako, bilatzaile batean sar zaitezke, bilatu nahi dituzuen hitzak idatzi, eta agertzen direnen artean aukeratu. Baina hau zailegia bihur liteke, informazio kopurua handiegia baita; beraz, laguntza moduan, hona hemen erabilgarriak izan litezkeen web-orri batzuk:

- [www.wikipedia.org](http://www.wikipedia.org) Edozein lanbideri buruzko informazioa lor dezakezue; baita, langileek erabiltzen duten tresneriari buruzkoa ere.
- [www.educarm.es/udicom/unid7.htm](http://www.educarm.es/udicom/unid7.htm) Hemen, batez ere, irudiak topa ditzakezue. Eta , interesa izatekotan, ariketa erraz batzuk.
- [www.aintzinakolanbideak.net/eu](http://www.aintzinakolanbideak.net/eu) Lanbide tradizionalei buruzko orrialdea.
- [www.oficiosprofesionales.es](http://www.oficiosprofesionales.es) Lanbide batzuen ikasketei buruzko informazioa.
- [www.arsenalfotografico.com/banco\\_de\\_imagenes/trabajooofici\\_osyprofesiones](http://www.arsenalfotografico.com/banco_de_imagenes/trabajooofici_osyprofesiones) Orrialde honetan mota askotako irudiak.
- [www.orientamecd.es/orienta/piop/jsp/prof/eleccion](http://www.orientamecd.es/orienta/piop/jsp/prof/eleccion)
- [www.http://apuntes.rincondelvago.com/trabajos\\_global/oficios](http://www.http://apuntes.rincondelvago.com/trabajos_global/oficios) Lan ezberdinak daude, baina kontuan izan behar duzue zuentzat zeintzuk diren egokiak.
- [www.trabajastur/perfiles](http://www.trabajastur/perfiles) Zeintzuk diren langile bakoitzak izan behar dituen trebeziak eta zertan egingo duen lan.

Informazioa izan ondoren, gorde dena Word dokumentu batean eta zuen karpetan jarri, hurrengo jardueretan eskuragarri izateko.

Ez ahaztu nondik lortu duzuen informazioa apuntatzea, gero bibliografia jarri beharko duzue eta.

#### **4. eta 5. jarduerak**

##### **Informazioa antolatu.**

Orain arte informazioa lortzen aritu zarete, baina orain informazio horrekin lan egitea dagokizue. Erabaki beharko duzue zer den interesgarri eta zer ez, zein erabiliko duzuen eta zein ez ,eta nola islatuko duzuen txostenean.

Horretarako, irizpide nagusia izan behar da txostena nori zuzenduta dagoen jakitea. Kontuan hartu eskolako liburutegian uzteko txostena izango dela; beraz, gure ikaskideek irakurtzeko egokia. Informazioa ez da konplexuegia izan behar, ezta sinpleegia ere. Dena dela,

norbaitek gehiago sakondu nahi balu, aukera izan beharko luke; horretarako, gai batzuetan ez sartu arren, aipua egin zenitzakete interesatuta dagoenak erabiltzeko aukera izan dezan.

Lan hau taldean egingo duzue eta zuen jarrera ebaluatzeko, taula hau lagungarria izan liteke. Bakoitzaren lana baloratu ahal izateko, bete ezazue denon artean ebaluazioa eta auto-ebaluazioa fitxa.

	bai	ez	batzuetan
Gogotsu parte hartzen du.			
Iritziak era egokian ematen ditu: doinu egokian, argudioen bidez...			
Besteen iritziak kontuan hartzen ditu.			
Besteen ekarpenak, gaitasunak eta mugak onartzen ditu.			

## 6. Jarduera

### Txostena idatzi.

Lana ondo bideratuta duzue. Orain falta dena da txukun-txukun idaztea. Horretarako, ordenagailua erabili beharko duzue, Word programa, hain zuzen.

Azalpen testua da; orduan, ez ahaztu ezaugarri guztiak kontuan izan behar dituzuela.

Aurreko jardueretan erabaki dituzuen atazak ondo banatu behar dituzue, atazen izenburuak markatu, eta erabiliko dituzuen irudiei oinak jarri beharko dizkiezue.

Gainera, kontuan izan beharko duzue txukun eta polita gelditu behar dela, horretarako ondo aukeratu letra mota, koloreak eta diseinua.



## Kontrol-orria

	bai	ez
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Testuaren helburua informatzea da.</li> <li>○ Ez da iritzirik ematen.</li> <li>○ Informazioa atalez atal eta paragrafoka antolatuta dago.</li> <li>○ Atalak ongi bereizita daude azpтитuluen bidez.</li> <li>○ Hizkuntzari begira aditzak hirugarren pertsonan erabiltzen dira.</li> <li>○ Atalak bereizten dira.</li> </ul> <p>Sarrera Garapena Ondorioa</p>		
Irakurlearen maila kontuan hartzen da.		
Egitura egokia du : sarrera, garapena , amaiera.		
Idatzitakoa erraz ulertzen da.		
Euskarri grafikoak ondo erabiltzen dira.		
Bibliografia agertzen da.		

### Txostenaren forma ebaluatzeko.

	bai	ez
"Fuentes" ikonoa era egokian erabiltzen da.		
Koloreak era egokian erabiltzen dira.		
Irudiak, grafikoak... ondo jartzen dira.		
"Viñetas" ikonoa ondo erabiltzen da.		
Akats ortografikorik gabe idatzita dago.		

Azken bertsioa daukazuenean, gorde eta inprimatu.



## 7. jarduera.

### Aurkezpena prestatu.



Lana egina duzue. Orain lagunei aurkeztu behar diezue. Aurkezpen hau ondo ateratzeko, ongi prestatu behar da, horregatik taldean prestatu behar duzue: zer esan, nola azaldu, nola eta noiz erakutsi irudiak, nork aurkeztuko duen zati bakoitza eta abar.

Horretaz gain, gogoratu behar duzue jendearen aurrean nola hitz egin behar den: ozenki, argi, astiro, entzuleei begiratzen, galderak erantzuteko prest...

## 8. jarduera.

### Aurkezpena

Hau amaiera da. Zuen ikaskideen aurrean aurkezpena egiteko ordua heldu da.

Aurkezpena nola atera zaizuen jakiteko, eskatu entzuleei hau bezalako fitxa bat betetzeko.

	bai	ez
Doinu egokia erabili du.		
Entzuleei begiratu die.		
Gorputz jarrera egokia izan du.		
Galderak ondo erantzun ditu.		



### **Ebaluazioa**

Jarduera batzuk errazago ebaluatzeko, txantiloak hauek erabilgarriak izan litezke, adierazleak islatzen baitira.

### 3., 4. eta 5. jarduerak ebaluatzeko txantiloia

	bai	ez	zailtasunez
Web-orriak erraz topatzen ditu.			
Informazioari dagokion maila ondo ezberdintzen du.			
Testu luze batetik, erabilgarria den informazioa hautatzen du.			
Antzekoak diren informazioen artean egokiena aukeratzen du.			
Informazio osagarria prestatzen du.			
Informazioa era egokian gordetzen du.			

### 6. jarduera ebaluatzeko txantiloiak

Taldean lan egiteko gaitasuna ebaluatzeko.

	bai	ez	batzuetan
Parte hartzen du.			
Bere iritziak era egokian azaltzen ditu: doinu egokian, argudioen bidez...			
Okertzea ikasteko bidea dela onartzen du.			
Besteen iritziak kontuan hartzen			

ditu.			
Besteen ekarpenak, gaitasunak eta mugaketak ondo onartu eta baloratzen ditu.			
Lan ona egiten disfrutatzen du.			

**Ahozko azalpena ebaluatzeko.**

	bai	ez
Ahoskera egokia erabiltzen du.		
Entzuleei begiratzen die.		
Jarrera fisiko egokia du.		
Euskarri grafikoak ondo erabiltzen ditu.		
Entzuleei galderak egiteko aukera ematen die eta egindako galderak erantzuten ditu.		